



**OEEren
33. Osasun
Biltzarra
Botiketarik
haratago**

**2024 urriak 25
Zornotza
Bizkaia**

OSASUNGOA
EUSKALDUNTZEKO
ERAKUNDEA

Babesleak

Bizkaia
Foru Aldundia
diputación foral

Osakidetza



OEEren 2024ko Osasun Biltzarra martxan da. Izena eman!

Osasun Biltzarra martxan da dagoeneko! Urriaren 25ean izango da, ostiralez, Zornotza-Amorebietan. Aurten, botiketarik haratago joateko zer egin behar dugun aztertuko da. Horretarako bi mahai inguru interesgarri izango ditugu:

- Min kronikoari aurre egiten.
- Betiko gaixotasunak polifarmaziatik kanpo.

Eta, horiez gain, komunikazio eta posterrak, despreskripzioari buruzko tailer bat eta historia klinikoa eta euskarari buruzko hitzaldi bat. Egitarau osoa [hemen](#) aurkituko duzu. [Izena eman!](#)

Bestalde, OEEren sare sozialetan aurkituko dituzu Osasun Biltzarrean parte hartuko duten profesionalak egindako bideoak. Lehenengoa, Amaia Mendizabal farmazialariarena.

Aukeratu nahiago duzuna: [X](#), [Facebook](#), Instagram, [TikTok](#)



Sarean da Osagaiz aldizkariaren zenbaki berria

[Osagaiz](#) osasun-zientzien aldizkariaren zenbaki berria sarean dagoela jakinarazi nahi dizuegu. OEE-Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak eta UEU-Udako Euskal Unibertsitateak plazaratzen duten argitalpenaren ale berezi honetan, apirilaren 11n lurretan egin ziren XVI. Pediatria Topaketan aurkeztutako lanak irakurtzeko aukera egongo da.

Lotura: <https://labur.eus/lqZRd>



"Osatuberrri" aldizkariko irakurgai berriak eskura

Osakidetzako euskara-aldizkariaren iraileko hainbat irakurgai daude. Horetako batean, Veronica Ruiz Pereda Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Erizaintzako zuzendariordeari hitza eman diote. Izan ere, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean errealitate birtuala erabiltzen dute hurrei odola ateratzeko garaian. Horretaz gain, Agurtzane Ormatza Imatz sexologoak orgasmoari buruz egin duen artikulua irakur daiteke. Osatuberrira joateko sakatu [hemen](#).